

AFRIKARRAK EZ DATOZ EUROPARA PRESIO DEMOGRAFIKOAGATIK ENPLEGURIK EZ DAUKATELAKO DATOZ

Jatorri afrikarreko zenbat biztanle eduki ditzake Europak 2050. urtean? Zerk bultzata abiatzen dira Europarantz Afrikako hainbeste gizon eta emakume? Europaren balizko afrikartzea ez da soilik eskuin politikoak migrazioaren inguruan zabaldutako beldurra, eztabaida akademikoen iturri ere bada: Afrikaren beroaldi demografikoaz gain, jokoan daude garapen ereduak, aberastasunen banaketa, gazteen langabezia itzela... Afrikarrak beste guztiak bezalakoak direla, alegia.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Stephen Smith kazetari eta irakasleak *Europarantzko korrikaldi handia* liburuarekin sortutako zala-partaren berri eman zuen ARGIAk duela urtebete: *Europarrok nola afrikartuko garen datozen hamarkadetan* kronikan. Geroztik hainbat erreakzio izan da hedabideetan bezala mundu akademikoan eta horietako batzuk laburbildu ditugu hemen.

Smithek bere liburuan dio, bi kontinenteetako demografien dinamikak azterturik, afrikarren Europarako migrazioa gero eta handiagoa izango dela eta saihestu ezinezkoa dela Europako populazioaren afrikartzea.

Funtsean iragarri du Afrikak egingo duela aurretik mundu osoak –Europak, Latino Amerikak, Asiak– egin duena: bere trantsizio demografikoa burutu. Populazio leherketa beteaz 1930az geroztik, 2050. urterako bikoiztu egingo dela Afrikako biztanleria.

Eztanda demografikoaren ostean berealdia eta gero zahartzea ezagutu dituzten beste ereduak aztertuta, Smithek kalkulatu du Afrika 2050ean hasi litekeela bere herritarren ihesiari eusten, baina bitartean, 2050erako Europako biztanleen %20-25 afrikar jatorrikoa izatera iritsiko dela (2015ean %1,5-%2 zen).

Smithen aurreikuspenak ukatzen lehengoetakoa izan da François Heran demografo frantsesa. Frantziako Ikerketa Demografikoen Institutu Nazionalaren buletinetik erantzun dio 2050ean Europan afrikar jatorrizkoak ez direla izango

herritarren %25 baizik eta %3 edo %4. Heranek ez du zalantzan jarri afrikarren etorkizuneko migrazio handia, baina ziur dago ez dela gertatuko 2050 baino lehen. Hona zergatik.

Wilbur Zelinsky geografoak 1971n erakutsi zuen migratzaileak ez direla izaten herrialde bateko jende pobreenak, gizarte oso txiroak garapen ereduari aurrera egin ahala hasten direla migratzaileak bidaltzen: hilkortasun tasak gutxitzean –nagusiki umeena– populazioa gaztetu eta migrazioak ugaritzen dira. Herrialde horiek aberastasun maila batera iristean ihesak gutxitu eta beste lekuetatik etorkinak hartzen hasten dira.

“Garapenari dagokionez –idatzi du Heranek– herrialdeak 1etik hasita 10era arte sailkatuz gero Saharaz behekoak 1ean daude, Mexiko 6an, Frantzia 9an eta AEB 10ean. Gaur ere 6tik 10erako migrazioak masiboak dira (25 milioi urtean) baina 1etik 9 edo 10era doazenak askoz murriztagoak (2,3 milioi). Nork pentsa dezake Saharaz beheko Afrikako herrialdeek 2050a bitartean *erre* ahal izango dituztela Mexiko harrapatu arteko maila igoera guztiak?”

Le Monde Diplomatique-tik Benoît Bréville historialari eta kazetariak, bere aldetik, ohartarazi nahi izan du garapenak migrazioen aferan dauzkan ondorio kontraesankorrez. Kasu askotan garapen ekonomikoa lortu nahi da ekonomiaren liberalizazioarekin, baina honek ustez arindu behar zuen migrazioa azkenean larriagotu baizik ez du egiten.

Adibide nabarmenena, Mexiko bera da. 1992an AEBekin liberalizazio ituna sinatzean esan zuen Carlos Salinas de Gortari presidentek: “Aurrerantzean mexikarrek ez dute iparraldera migratu behar, hemen bertan aurkituko dutelako lana”. Jada orduan zenbait ekonomialari kritikok iragarri bezala, justu alderantzizkoa gertatu zen.

2014an Europar Batasunak antzeko ituna sinatu zuen Afrikako 30 herrialderekin, eta horrek berak eragin dezake etorkinen uholdea handitzea, murrizteko partez. Azken finean, migrazioa ez du garapenak eragiten, baizik eta garapenaren onurak berdintasunik gabe banatzeak eta enplegu faltak, batik bat gazteenak.

LANGABEZIARI IHES

Enplegu falta, hori bera nabarmendu du Mo Ibrahim fundazioak plazaratu berri duen ikerlanak: “*Gazteria afrikarra: enplegu faltagatik migratzen?*”. Mo Ibrahim Afrikako enpresaburu aberatsenetakoa da, kontinenteko telefonian nagusi den Celtel konpainiaren jabea. Bere izena daraman fundazioak Abidjanen (Boli Kosta) bildu ditu kontinenteko lider eta akademikoak, Afrikatik migrazioen afera nola ikusten den islatzeko. Irakurtzekoa da.

2017an 36,3 milioi afrikarrek migratu zuten, munduan mugitu ziren guztien %14,1; askoz gutxiago asiatarrek (%41) eta europarrak (%24) baino. Baina haietatik gehienak Afrikako beste



MAIATZAREN 1EAN

PROTESTA KONGOKO KIVU HERRIAN: "LANAREN NAZIOARTEKO EGUNA ETA LAN BARIK KONGON, A ZER IRONIA" DIO IDATZIAK.

herriren batera doaz, zehazki Saharaz beheko migratzaileen %70 kontinente-ko beste nonbaitera doa bizimodu bila.

Migratzaileok gehien bat gazteak dira, ikasketaren baten jabeak, gizonak adina emakumeak. Iritsi diren herrialdean gastatzen dute irabazten dutenaren %85. Sorterriko beren familiei bidaltzen dienarekin osatzen da Afrikaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) %3,5: nazioarteak garapenerako laguntzetan ematen diona baino gehiago.

Populazioaren ugaltzean munduko tasa handiena daukaten hamar herrialdetatik bederatzi afrikarrak dira, zehazki Saharaz beheko herrialdeetan ugaltze tasa munduko batez bestekoaren bikoitza da. Aldiz, hazkunde demografikoaren aldean oso atzera geratu da Afrika garapen ekonomikoan. Oraintxe bertan kontinente osoaren BPGa txi-

kiagoa da Britainia Handiarena baino, nahiz eta honek baino hogeitaz bizi-tanle gehiago eduki.

Afrikarren %60k gaur 25 urte baino gutxiago dauzka. 2100 bitartean gazteen kopurua kasik bikoiztu egingo da, Europan eta Asian urrituko den bitartean eta munduak orduan edukiko dituen gazteen erdiak afrikarrak izanen dira.

Gaur 16 milioi gazte afrikar daude lan-gabezia, proportzioan gehiago hiri handietan. Eta Mo Ibrahim foroan aurkeztutako ikerketa soziologikoez erakutsi dute gazteok lanak kezkatzen ditu nagusiki. Afrikaren azken hamarkadako hazkunde ekonomikoak ez du kasik lanposturik sortu. Saharaz beheko aldean urtean hiru milioi enplegu sortzen da, nahiz eta lan bila hasten diren gazteen beharrak asetzeko beharko lirakeen... 18 milioi!

Nekazaritzak sortzen ditu lanpos-

tuen %60, Afrikaren BPGaren herena ere bai; alabaina, gazteek ez dute laborantzan aritu nahi, jarduera zaharkitua eta gogorra delako, dirurik ematen ez duena. Munduan beste leku askotan ikusi den gisan -etorkinek hainbeste kezkatzen dituzten espainiarrek beren historia hurbila ezagutu beharko lukete- gazteok lan bila edonora joateko irrikaz bizi dira. Datu hau adierazgarri: inkestetan beren herrialdetik kanpo migratu nahi duten gazte guztiek konplutuko balute beren asmoa, Sierra Leonak gazteen %78 galduko luke, Liberiak %70 eta Nigeriak %57.

Afrikako populazioaren batez besteko adinaren eta beren agintarien arteko leizea 45 urtekoa omen da. Mundu guztian daude zaharrak agintean, baina kontua da Afrikan gazteak indarrean datozela leku eske. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t